# Barneratzen ari garen historiak…

"Morea" feminismoaren kolorea da. Inork ez daki zergatia, zehatz. Legendak dio 1908an Estatu Batuetako ehun fabrika batean hil ziren 129 emakumeen omenez hartu zela, enpresariak langileen grebaren aurrean, emakumeak barruan zirela lantegiari su emanda hil zirenen izenean. Legenda berean agertzen da, langileak egiten ari ziren ehunak moreak zirela. Poetikoenek diote lantegitik irteten zen kea, eta kilometroetara ikus zitekeena, kolore horretakoa zela. New Yorkeko Cotton ehun lantegiaren suteak eta ehunen koloreak feminismoaren mitologiaren parte dira, historia baino gehiago, baina, bai kolorea, bai eguna, martxoaren 8a, munduko feminista guztiek konpartitzen dute. “Lazo morea" emakume taldeek 90 hamarkadan hartu zuten emakumeen kontrako indarkeria salatzeko ikur gisa.

“Lazo zuriaren kanpaina” Kanadan hasi zen. 1989ko abenduaren 6ko gertaera tragiko batek hunkiturik utzi zuen herrialdea hura. Montrealgo Unibertsitateko Eskola Politeknikoko hamalau emakume-ikasle asasinatu zituzten, eta beste hamahiru ikasle, bederatzi emakumezko eta lau gizonezko zauritu egin zituzten. Mundu mailan “Montrealgo Masakrea” izenaz ezagutzen denaren egileak, 25 urteko mutil gazteak, eskutitz batean adierazi zuenez, oportunistak izateagatik hil zituen: “emakume izatearen abantailak gorde nahi dituzte…bitartean gizonezkoenak eskuratzen saiatzen dira". Aipatutako eskutitzari zerrenda bat erantsi zion. Zerrendan, Quebec-en ezagunak ziren hemeretzi emakumeren izenak agertzen ziren, lanbide ez-tradizionaletan aritzen ziren emakumeenak, herrialdeko lehen emakume suhiltzailearena eta poliziako kapitainarena barne. Handik bi urtera, 1991n, kanadar gizon talde batek, biztanleriaren artean kontzientziatze eta konpromiso kanpaina dinamizatzeko asmoz eta, horrelakorik berriro gerta ez zedin, lazo zuriaren lehen kanpainari ekin zion.
Emakumeen kontra era bortitzean inoiz ez jarduteko konpromisoa hartzeko eta, euren inguruan ere horrelakorik ez onartzeko.

Lazo zurimoreak emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokan gizon eta emakumeak biltzeko filosofiari jarraitu nahi dio. Lazo zurimore honek argi eta publiko adierazi nahi du, gizona zein emakumea izan, isilik ez geratzeko konpromisoa, emakumeengako indarkeria jarrerak salatzekoa, portaera horien aurrean arbuioa agertzekoa, horrela, erasotzaileek euren portaerekiko gaitzespen soziala jaso dezaten, eta gaitzespen horrek jokaera agresiboa aztertzera eta jarrera aldatzera eraman ditzan. Isiltasunak, nolabait, erasoen konplize egiten gaitu eta indarkeria betikotzen du.



*Iniziatiba hau Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren “Emakumeenganako etxe-tratu txarraren aurkako Ekintza Programa”ren barruan kokatzen da*

## Historias que van calando...

El «violeta» es el color del feminismo. Nadie sabe muy bien por qué. La leyenda cuenta que se adoptó en honor a las 129 mujeres que murieron en una fábrica textil de Estados Unidos en 1908 cuando el empresario, ante la huelga de las trabajadoras, prendió fuego a la empresa con todas las mujeres dentro. En esa misma leyenda se relata que las telas sobre las que estaban trabajando las obreras eran de color violeta. Las más poéticas aseguran que el humo que salía de la fábrica, y se podía ver a kilómetros de distancia, era el que tenía ese color. El incendio de la fábrica textil Cotton de Nueva York y el color de las telas forman parte de la mitología del feminismo más que de su historia, pero tanto el color como la fecha -8 de marzo- son compartidos por las feministas de todo el mundo.
En la década de los 90, los colectivos de mujeres adoptaron ***un lazo de color violeta*** para denunciar los actos violentos que se ejercen contra las mujeres.

La «Campaña del lazo blanco» empezó en Canadá: el 6 de diciembre de 1989 un suceso trágico conmovió a todo el país. Catorce estudiantes de la Escuela Politécnica de la Universidad de Montreal fueron asesinadas y trece estudiantes más, nueve mujeres y cuatro hombres, sufrieron heridas más o menos graves. El autor de la mundialmente conocida "Masacre de Montreal, un joven de 25 años, señaló en una carta que había matado a las mujeres por acaparadoras y oportunistas, porque «quieren mantener las ventajas de ser mujer... y, al mismo tiempo, quieren apropiarse de las ventajas de ser hombre...». A la carta acompañaba un listado con el nombre de diecinueve mujeres destacadas de Quebec, dedicadas a ocupaciones no tradicionales, entre ellas la primera mujer bombera de la provincia y una capitana de la policía.
En 1991, dos años más tarde, un grupo de hombres canadienses, decididos a dinamizar una campaña de concienciación y compromiso entre la población para que esa tragedia no se pudiera repetir, propusieron a la gente colocarse ***un lazo de color blanco*** que tradujera públicamente su compromiso a
no actuar de manera violenta contra una mujer ni consentirlo en su entorno.

El ***lazo blancovioleta*** quiere seguir la filosofía de unir a hombres y mujeres en la lucha contra la violencia sobre las mujeres. Este lazo blancovioleta quiere manifestar clara y públicamente el compromiso, seas hombre o mujer, de no guardar silencio, de denunciar las actitudes violentas hacia las mujeres, de manifestar explícitamente la repulsa ante tales comportamientos, de modo que quienes agreden vean desaprobado socialmente su modo de proceder y eso les obligue a examinar y a cambiar su conducta agresiva.
El silencio nos hace de algún modo cómplices en la agresión y perpetúa la violencia.



*Esta iniciativa se enmarca en el "Programa de actuación frente al maltrato doméstico contra las mujeres" del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco*